



EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNARI BURUZKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

1949an Eusko Ikaskuntza Erakundeak eta Euskaltzaleen Biltzarrak abenduaren 3a Euskararen Nazioarteko Eguna izendatu zuten egun hartatik, guztiontzako ospakizun eguna izateaz gain, gure hizkuntzarekiko dugun konpromisoa berresteko eguna ere bada.

Euskara indartzea eta normalizatzea herritarrok eta herri erakundeok adostasun zabalenean oinarritutako konpromisoaren eskutik dator, eta gure hizkuntza gizarteremu guztietan erabiliz gauzatzen da. Horretarako ditugu, besteak beste, 1982an Eusko Legebiltzarrak onartutako Euskararen Legea, euskal gizarteak euskararen eta bizikidetzaren alde duen konpromiso irmoaren isla nagusia, eta 1992an Hondarribiko Udalak onartutako Euskararen Ordenantza, bi hizkuntza ofizialen berdintasun soziala lortzeko helburuarekin euskarari lehentasunezko tratamendu berezitua ematen diona.

Herritarrei eta herri erakundeek dagokie legeok dituzten ahalmenak garatzea, euskarak erabilera eskasa duen esparruetan handituz, erabiltzen den esparruetan sendotuz, eta hitzun berrien beharretara egokituz. Azken finean, euskararen erabilera bultzatu behar da bizitzako esparru guztietan. Hala nahi duen orok euskaraz bizitzeko parada izan dezan.

Horretarako, Euskara Biziberritzeko Plangintza Nagusi berria onartu du Hondarribiko Udalak 2011n, udal zerbitzuetan herritarren arretarako hizkuntza eta laneko hizkuntza izan dadin sustatzeko Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana 2013an onartu du, udalerrian gizarte erabilera areagotzeko erabakiak hartuko ditu eta euskalduntzea nahiz alfabetatzea lantzeko programarekin jarraituko du. Aurten bereziki heldutan euskara ikastea erabaki duten pertsona guztiei jendaurreko aitortza egingo diegu, euskararenganako erakutsi duten atxikimendua eta hizkuntza ikasteko egin duten ahaleginagatik. Euskararen biziberritze prozesua etengabe elikatzen duten pertsona horiek, eta haien guztien gogoia, kemena eta ahalegina aitortu eta omendu nahi ditugu. Hori dela eta, Udal Euskaltegiaren zerbitzua eta jarduna eskaintzen jarraituko dugu eta 2016. urtean langabetuentzako ikastaroak doakoak izateko konpromisoa hartu dugu.

Hauek guztiak ezinbestekoak dira gero eta gizarte elkartuagoa eta orekatuagoa egiteko. Eta hala adierazten dugu 2015eko Euskararen Nazioarteko Egunean Hondarribiko Udaleko EAJ, ABOTSANITZ, EH BILDU, PSE-EE eta PP udal talde politikoek.

Hondarribian, 2015ko abenduaren 3an